



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Morroi gizarajo batzuk gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”

2022ko urriaren 2a
Urteko 27. igandea (C)

Lukas 17, 5-10.

Apostoluek eskatu zioten Jaunari:

Handi ezazu sinesmena guregan.

Jaunak erantzun zuen:

Sinesmena bazenute, mostazahazia bezain txikia izanik ere, pikuondo honi “Atera hortik eta landatu itsasoan” esango zenioke, eta obeditu egingo lizueke.

“Emazue zuetako batek morroi bat duela soro-lan edo artzantzarako. Morroia etxeratzean, ‘Hator berehala mahaira’ esaten ote dio? Ez ote dio beste hau esaten: ‘Presta iezadak afaria, jantzi amantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk hik?’ Morroiari esker ona zor ote dio agindua bete duelako? Zuek ere berdin: agindu zaizuen guztia egin eta gero, esan: ‘Morroi gizarajo batzuk gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin’”.

“Morroi gizarajo batzuk gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”

HANDITU, JAUNA, GURE FEDEA

Jose Antonio Pagola

Era latzean, bizi ez biziko eskari hau egin diote ikasleek Jesusi: «**Handitu, Jauna, gure fedea**». Beste batean esan zioten: «*Erakutsi guri otoi ez giten*». Jainkoaren egitasmoa eta gomendatu nahi dien egitekoa Jesusek erakutsi ahala, ikasleak jabetu dira ez dutela nahikoa txikitatik bizi duten fede hura haren deiari erantzun ahal izateko. Fede adoretuagoa eta indartsuagoa behar dute.

Hogei mende baino gehiago dira. Historian barna, Jesusen ikasleek Ebanjelioarekiko leialtasun-urteak bizi izan dituzte, baita desleialtasun-urte ilunak ere. Fede jatorreko aldiak eta baita krisialdikoak eta dudamudazkoak. Ez ote gara gu ere Jaunari eskatu beharrean gure fedea handitu dezan?

Jauna, handitu gure fedea. Erakutsi guri fedea ez datzala zerbait sinestean, baizik zugar, Jainkoaren seme gizon egin horrengan, sinestean, gure barrua zure Espirituari irekitzeko, zure Hitzak atzeman gaitzan uzteko, zure biziera bizitzen ikasteko eta zure urratsei hurbiletik jarraitzeko. Zu bakarrik zara «gure fedearen hasiera eta betetzaila».

Jauna, handitu gure fedea. Emaguzu erdigunetzat funtsezkoa izango duen fedea, zure Ebanjelioaren muietik urruntzen gaituzten eranskinetatik eta adabaki gehigarrietatik garbitua. Erakutsi iezaguzu aldi honetan fedea bizitzen, ez kanpoko euskarrietan sostengatua, baizik zure presentzia bizia geure bihotzean eta geure elkarte fededunetan biziz.

Jauna, handitu gure fedea. Egizu izan ditzagula zurekin bizi-harremanak era sakonagoan, jakinik zu zaitugula, gure Maisu eta Jaun hori, Elizan dugun guztietan lehenengoa, hoberena, baliotsuena eta erakargarriena. Emaguzu fede kutsagarria, kristautasunaren aro berri batera bidera gaitzakeena, zure Espirituari eta zure ibilbideari leialagoa den kristautasunera.

Jauna, handitu gure fedea. Biziaraz gaitzazu Jainkoaren erreinuko zure egitasmoarekin bat eginez, zinez eta konbentzimenduz parte hartuz, bizitza gizatarrago egiteko, Aitak nahi bezala. Lagundu gaitzazu geure fedea apal bizi dezagun, Jainkoarekiko suaz eta gizakiarekiko errukiaz.

Jauna, handitu gure fedea. Erakutsi iezaguzu bizitza era ebanjelikoagoan bizitzen, kristautasun urardotua bizitzera mugatu gabe, gata gezatu gabe eta Elizak modu harrigarrian bere legamia-izaera galdu gabe. Iratzar ezazu gure artean lekukoak eta profeten fedea.

Jauna, handitu gure fedea. Ez gaitzazu erotzen utzi gurutzerik gabeko kristautasun batean. Erakutsi iezaguzu aurkitzen fedea ez datzala komeni zaigun Jainkoagan sinesten, baizik gure erantzukizuna sendotzen eta maitatzeko gure ahalmena garatzen duen hartan. Erakutsi iezaguzu zuri jarraitzen egunean eguneko gurutzea hartuz.

Jauna, handitu gure fedea. Suma zaitzagula gure artean pizturik, gure bizitza eraberrituz eta gure elkarteak arnastuz.